

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



HODEGONEKO HODEGETRIA IKONO MIRARIGILEA

Egilea: Leire Iruretagoiena Goikoetxea

Tutorea: Juanjo Usabiaga Urkola

Artearen Historiako Gradua

2020-2021. ikasturtea

(Artearen eta Musikaren Historiako Saila)

AURKIBIDEA:

1.	LABURPENA.....	2. orr.
2.	SARRERA.....	3. orr.
3.	MIRARI ERRAINUAK: ESPAZIALTASUNA ETA ESPERIENTZIA SINESTESIKOA.....	4. orr.
4.	HODEGONEKO HODEGETRIA IKONO MIRARIGILEA.....	8. orr.
4.1.	AKATHISTOS ZIKLOA.....	11. orr.
4.2.	SAN LUKASEN TRADIZIOA.....	15. orr.
4.3.	HODEGON MONASTERIOA.....	17. orr.
4.4.	ASTEARTEETAKO ERRITUA.....	20. orr.
4.5.	KONSTANTINOPLAKO <i>PALLADIUMA</i>	26. orr.
5.	ONDORIOAK.....	29. orr.
6.	BIBLIOGRAFIA ETA WEB ORRIAK.....	31. orr.

1. LABURPENA

Tradizio bizantziarraren arabera, Konstantinoplako Hodegon elizako Hodegetria ikono mirarigilea —etimologikoki, *Bidea seinalatzen duena*— San Lukas ebanjelariak margotu zuen eskuz, Ama Birjina, Jesus haurtxoa magalean hartuta, aurrez aurre zuela. Elezaharrei jarraiki, V. mendean bidali zuten ohol pintatua Jerusalemdik Konstantinoplara, garrantzia handiko erlikia kristauen pare. Ikonoari harrera emateko, Hagia Sophia eta enperadore-enperatrizen Jauregi Handitik gertu, Hodegon izeneko monasterioa eraiki zuten orube sakratuan:itsuak senda zitzakeen urmael mirakulutsu baten alboan, hain zuzen ere. Hodegetria ikonoa San Lukasek eginikoa zenez gero, Bizantziar Inperioaren hiriburura ailegatu bezain pronto agertu zuen mirariak sortzeko ahalmena: eriak sendatuz ez ezik, orokorrean, gaitz oro uxatu eta konstantinoplatarrak etsaiengandik babestuz (guda, izurriak...). Hala, denboraren poderioz, nabarmen hazi zen Hodegoneko Hodegetria ikono mirarigileari lotutako gurtza, harik eta bizantziarren egunerokotasunaren ardatz bihurtu zen arte. Izan ere, etxeko gurtza pribatuaren eremuaz eta gurtza publikoaren espazio sakratuaz (Hodegon eliza) haraindi, noiznahi hiriko kaleak hartzera heldu zen: Konstantinoplako ekitaldi erlijioso eder eta itzelenak ziren prozesioen bidez (lekuko historikoen hitzetan).

Hasiera batean, egutegi erlijiosoak edo gertakari seinalatuek (garaipen belikoak, tronuratzeak...) markaturiko jaiegun berezietan ospatzen ziren prozesioak, laster, baina, astero-asteroko ohitura bihurtu ziren: hain zuzen, preseski azoka eguna egokitzen zen astearteetan ekin zioten ikonoa Hodegon elizatik atera eta hiriaren erdiguneko plaza zein kale nagusietan barrena omentzeari. Modu horretara, errituak irauten zuen artean, bizantziarren sinesmenean miragarriak ziren ordu horietan, hiriko espazio guztiz profanoa eszenatoki sakratu erraldoi bihurtzen zen.

Ikusmenaren esperientziaren mugetan koka genezake konstantinoplatarrek egunerokotasunean bizi zuten ekitaldi hura, ikonoek barruan daramaten (lurraren eta zeruaren arteko) bitartekari edo *irudi bizien* esanahi eta izaerari lotutako esperientzia sinestesikoak, ikuspen espazialak bezalaxe, ahalbidetzen baitzuten zerutiarra, ikusezina dena ikusgarri, hautemangarri bihurtzea fededunen aurrean. Testuinguru horretan konpreni daitezke, Hodegoneko Hodegetria ikonoaren prozesioek irauten zuten artean, era ziurrean gertatzen ziren mirariak.

Ikonoklastiaren garaian, 843ko Ortodoxiaren Garaipena Hodegoneko Hodegetria ikonoarekin harremandu zuten, ikonoduloentzat San Lukas *lehen ikonogile* modura aldarrikatzea argudio erabakigarria izan baitzen. Momentu historiko hori, hortaz, giltzarri da Hodegetria ikono mirarigilearen bilakaeran, gerora begira ez ezik, baita atzera begirakoan ere. Legenden eta Historiaren bidegurutze edo elkargunetzat har baikenezake. Izan ere, mundu ortodoxoan egun mantentzen den sinesmen herrikoiean, —1453ko Konstantinoplaren erorialdian desagertu izan ez balitz— jatorrizko Hodegoneko Hodegetria ikonoak ia bi mila urteko antzinatasuna izango baluke ere, berauen berri ematen duten testigantza historiko gehienak IX. mendetik aurrerakoak dira; irudi sakratuen arrakastaren ostekoak, alegia. Hain justu, irudien teoria bizantziarra bera ere, ikonoduloek ikonoen gurtza defendatzeko zuten premiaren harira sortu zela pentsatzen da. Baliteke, ordura arte artelan edo idazkietan ez jaso arren ahozko tradizioz transmititu izana. Nolanahi ere, Hodegoneko Hodegetria ikono mirarigilearen gurtza (eta hari lotutako iruditegi sinbolikoa) ikonoen arrakastaren testuinguru horretan finkatu zen.

Finkapenak, jakina, —hau da, Hodegetria ikonoaren jatorria, berezko ezaugarriak, iraganeko gertakariekin lotutako mirariak eta, batez ere, Ortodoxiaren Garaipenarekin zuen lotura hitzez eta irudiz jaso izanak— Hodegoneko irudi mirarigilearen gurtzaren hedapen eta ospearen bermea ekarri zituen. Hortik letorke aipaturiko Hodegoneko Hodegetria ikonoaren dimentsio publikoaren zabaltasuna: etxeak, elizak eta kaleak hartzen zituena prozesioak zirela eta. Ospearen gailurra edo seinale argiena XII. mendean Konstantinoplako *palladiuma* izatera heldu izana litzateke, izendapen horrek Inperio Bizantziarraren osotasunaren zaindari nagusitzat aitortu zutela esan nahi baitu.

2. SARRERA

Ikonoak IV. mendean edo lehenago sortu ziren mundura eta kultura bizantziarrera, eta harrezkero, erreka emaritsu baten antzera, mendeak joan mendeak etorri, bizantziarren bizimoduaren bazter guztiak busti zituztela esan liteke. Fededunen begietara, ikonoak zeruranzko leiho eta beraz, salbazio-, esperantza-, babes- iturri jainkotiarrek ziren, horregatik gurtzen zituzten egunerokotasunean, elizan (ikonoz horniturik egon ohi ziren, ikonoklastiaren garaian hustu zituztenean salbu) ez ezik, kalean (prozesio, desfile eta tankerako errituetan)

etxean (euskarri txikietan egiten ziren kopien bidez gehienetan) eta baita, esaterako, lurraz haraindi, itsasoan ere (gudetan, Jainkoa lagun izateko itsasontzietako mastetan irudiak jarriz etab.¹). Sarri, gainera, horrekin guztiarekin batera, sinestunek sendabidetzat eta mirarien iturritzat ulertzen zituzten ikonoak.

Horrenbestez, bizantziarren mundu-ikuskeran eta identitatean sakonki errotuta zeuden ikonoak, Cormack ikerlariaren hitzetan, gugana testigu isil modura heldu badira ere, mila urte luze haietan zehar, emozio eta esperientzia anitzen eragile nahiz elkargune izan ziren. Argi dago, hortaz, ikonoak ez zirela irudi soilak, baizik eta *working images* edo *irudi eragileak*, hau da, hitz bakarrez esateko, bitartekariak.² Zentzu horretan, paradigmatikoa da aztergai izango dugun Hodegoneko Hodegetriaren kasua, ‘ikono guztien ikonoa’³, legendaren arabera San Lukasek berak eginikoa izaki, ospe itzela lortu zuena, hainbestearino, ezen Inperio Bizantziarraren hiriburuaren babesle bihurtu baitzen XII. mendean. Gainera, Ama Birjina hura prozesioan eramaten zen astero-astero, astearteetan, jaiegun berezietan bezalaxe, mirari ikusgarriekin txunditu eta hunkituz txanda bakoitzean, haren inguruan, otoitz eta kantu artean, biltzen zen fededun andana.

3. MIRARI ERRAINUAK: ESPAZIALITASUNA ETA ESPERIENTZIA SINESTESIKOA

Ikono hitzak (eikon, εἰκών) grekoz irudia, errepresentazioa eta erretratua esan nahi luke. Bizantzion bazuen beste esanahi zehatzago bat ere: halaxe deitzen zitzairen egurrezko oholen edo (kasu bakanagoetan) azalera preziatuaren gainean (bolia, metala, esmaltea,

¹Konparazio baterako, iturrien arabera, Heraklio enperadore bizantziarrak (575ing.-641) Ama Birjinaren irudiak jarri zituen bere itsasontzien mastetan itsasoan Jainkoa lagun izateko. GRABAR, A.: *La edad de oro de Justiniano: desde la muerte de Teodosio hasta el Islam*. Madril, Aguilar, 1988, 189 orr.

²CORMACK, R.: *Painting the Soul: Icons, Death Masks and Shrouds*. Londres, Reaktion Books, 1997, 31 orr.

³Tamalez, jatorrizko Hodegoneko Hodegetria ikonoa ez zaigu gaurdaino ailegatu: otomandarrek Konstantinopla konkistatu zuten sasoiaren (1453) desagertu zen arpilaketa batean. Ostera, zorionez, jatorrizko Hodegoneko irudi-patroi hartara gertura gaitzaketen Hodegetria ikonoaren kopia ugari existitzen dira mundu ortodoxoaren luze-zabalean. LIDOV, A.: “The Flying Hodegetria. The Miraculous Icon as Bearer of Sacred Space”, in THUNOE, E. eta WOLF, G. (ed.): *The Miraculous Image in the Late Middle Ages and Renaissance*. Erroma, Analecta Romana Instituti Danici: Supplementum, 2004, 291-321 orr., 308 orr.

mosaikoa eta esteatita) gauzatutako Kristoren, Ama Birjinaren eta santuen bizitzen eszenen erretratu eramangarriei.⁴

Eikon hitzaren adiera, ordea, ezin liteke *imago* hitz latindarraren esanahira bildu, ez baitator bat “Nartzisoren begiradaren” ulerkerarekin. Ikonoaren joera, nolabait, zeruko prototipoaren eta eskuz eginiko taularen arteko bereizketa gainditzea litzatekeen neurrian: San Pauloren arabera, ikonoek ikusezina dena ikusgarri bihurtzen dute eta San Joanen ereduz, berriz, Jainkoaren Hitza haragitzen. Izan ere, ikonoek nolabaiteko senidetasuna lukete prototipo jainkotiarrarekiko eta erlazio horrek bizitzaren bitarketari (*eikon zosa*), irudi bizi, edo are, bizitza bera (*mallon de auttousa zoe*) izan daitezen ahalbidetzen du.⁵

Hain zuzen, ikonoa Jainkoaren graziaz betetako materiatzat definitu liteke. Izan ere, IX. mendean zehar (ikonoduloen garaipenaren harira) finkatutako irudiaren teoria bizantziarraren arabera, prototipo sakratuen ezaugarri ikusgarrien (itxuraren) aztarna litzateke (grekoz, *typos*) materiaren gainean. Alegia, irudi bizantziar nagusiak ezin litezke pintzelkadez osaturiko pintura soil modura ulertu, baizik eta aztarna jainkotiar modura: euskarri material batean zigilatutako *typos* gisa.⁶

Zentzu horretan, ikono bizantziarra presentziaren eta absentziaren arteko nahasketatzat uler liteke, edo bien arteko tentsiotzat. Pertsonaia zerutiarra falta den arren (itxura), ikonoak dibinitatearen presentzia errepresentatzen baitu (esentzia), fededunekin duen elkarrizketa edo elkarreragite horren baitan. Elkarrizketa horri mimesia dei geniezaioke, mendebaldetarron ulerkerarekiko kontrastean (formaren imitazioa), bizantziarrentzat presentziaren imitazioa esan nahi bailuke. Beraz, ikonoek, pertsonaia zerutiarraren formaren aztarna izateaz haratago, esentzia jainkotiarra simulatuko lukete beren azalera zigilatu eta inguru aldakorraren arteko elkarreraginaren bitartez.⁷

Ikonoen artean, badira *working images* izateaz gain (jarraian aztertuko dugun *taula-fededuna* elkarrizketaren bidez), sinestunen begietara mirariak sortzeko gai zirenak,

⁴PENTCHEVA, B.: “The Performative Icon”, *The Art Bulletin*, 88. liburukia, 4.zbk., 2006, 631-655 orr.

⁵VASILIU, A.: “Lo visible, la imagen y el icono en los comienzos de la era cristiana”, in VELMANS, T.: *El mundo del icono desde los orígenes hasta la caída de Bizancio*. Madril, San Pablo editorial, 2003, 209-222 orr.

⁶PENTCHEVA, B.: op.cit., 631 orr.

⁷Ibid., 631 orr.

ikertzen ari garen Hodegoneko Birjinaren ikonoa kasu: besteak beste, eriak senda zitzakeen, fededunak salbamenerantz gerturatu, gerra denboran hiria etsaiengandik askatu eta abar. Ikono mirarigileak, hortaz, erlikien pareko lirateke, presentzia jainkotiarraren gordailu eta energia sakraturanzko sarbide zuzen.⁸

Aipatutako elkarreragin horretan, edo bestela esanda, fededunak ikonoa hautemateko unean, bi alderdi azpimarra genitzake, elkarren aberasgarri direnak: batetik, ikonoaren espazialtasunaren garrantzia, Lidov arte historiagilearen hitzak gogoratuz, “ikono espazialei” buruz aritu baikaitezke⁹; eta bestetik, esperientzia sinestesikoaren inportantzia, Pentcheva ikerlariaren esanei jarraiki¹⁰.

Lehenengo ideari helduz, bizantziarren begietara, ikonoak ikuspen espaziala zuen, gainazaletik ingurura zabaltzen zena. Hortaz, nolabait esateko, fededunek ikonoak taulan errekonozitu arren, irudiak objektu materialetik haratago osatzen edo gauzatzen ziren beren osotasunean.¹¹ Are, irudi sakratu bizantziarrak beren inguruan ezarritako testuinguru espazialarekiko bereiziezinak lirateke, miraria ez baitzen gertatzen taula gurtuaren baitan, irudiaren aurrean baizik. Hala, ikonoak energia jainkotiarraren bitartekari modura lan egiten zuen. Miraria, horrenbestez, ikonoaren barruan kontzentratutako indar jainkotiarra inguru sakratura barreiatzean gertatzen zen. Hori dela eta, inguru arkitektonikoa, elementu piktorikoak, kantugintza, argiztapenaren dramaturgia, intsentsua erretzea... espazio sakratuaren eraketaren menpeko osagai ezberdintzat behar genituzke ulertu. Osagai guztiek elkarlanean sortzen baitzuten, irudi mirarigileek barne, espazio sakratu berezia, kasuan kasu ezberdina.¹²

Bigarren kontzeptuari dagokionez, ikonoa, finean, soinuarekin, haizearekin, argiarekin, usainarekin... durundi egiten zuen edo itxuraldatzen zen azalera da. Kasurako, ikonoak kandelen eta olio-lanparen argitara egon ohi ziren, eta fededunaren arnasketak, mugimenduek... kandelen argiztapenaren egoera aldaraziko zuten, argi puntuak ikonoaren azalera zehar mugiarazi eta dirdiraraziz (ikus 1. irudia). Erretratu sakratuak berak ere zilar

⁸Ibid., 634 orr.


⁹LIDOV, A.: “Spatial icons. The miraculous performance with the Hodegetria of Constantinople”, in LIDOV, A. (ed.): *Hierotopy. Creation of Sacred Spaces in Byzantium and Medieval Russia*, Mosku, Progress, 2006, 349-372 orr.

¹⁰PENTCHEVA, B.: op.cit. 631-655 orr.

¹¹LIDOV, A.: “Spatial icons...” op.cit., 349 orr.

¹²LIDOV, A.: “The Flying Hodegetria...” op.cit., 291 orr.

urreztatu edo esmaltedun geruza bat izan ohi zuen maiz, fededunaren begia “blaitzen” zuena argitasunez eta distiraz. Gainera, airean goruntz igotzen zen intsentsuaren kea eta lurrina gehitu behar zaie argi jokoei, ukipen balioa (ikonoen gainazal aberatsak, batik bat material preziatuen gainean eginikoen edo harribitxiekin aipaindurikoen kasuan) eta otoitza zein musika bezalaxe (apaizaren zein fededunen errezo eta kantu hotsa). Hortaz, fededuna ikonoaren aurrean pausatu eta otoitzean hasten zenean, bost zentzumenak pizten zitzaizkiola esan genezake, dastamena ere barne (kasu batzuetan, adibidez, musu ematen baitzitzaien ikonoei: *aspasmosa*¹³ esan ohi dena).¹⁴



1.IRUDIA: *Gaur egungo eliza ortodoxo bateko liturgiaren erritua.*

Modu horretara, kultura bizantziarraren bereizgarritzat har daitekeen esperientzia sinestesikoa bizitzen zen erretratu sakratuaren aurrean (aldiberekotasunez, zentzumen berri bat piztu zekioken beste baten bidez) eta hain justu, plazer sensorial horien guztien bidez heldu zitekeen fededuna presentzia sakratua “sumatzera” edo are, ”sentitzera”. Izan ere, taula gaineko irudia, espazioarekiko eta sinestunarekiko elkarrizketan eraldatu edo bihurtu eta aldatu ahala, benetan bizia hartzen zuela, bizirik zegoela, zirudien. Bestela esanda, materiatic agerraldi jainkotiarra eratortzen zen: ikusezina, ukiezina... dena ikusgarri, hautemangarri

¹³MATHEWS, T. eta MULLER, N.: “Isis and Mary in early icons”, in VASSILAKI, M.: *Images of the Mother of God*. Aldershot, Ashgate Publishing, 2005, 3-12 orr.

¹⁴PENTCHEVA, B.: op.cit., 631 orr.

bihurtzen zen.¹⁵ Hitz gutxitan esateko, espazio lurtarretik espazio zerutiarrera irekitzen ziren leihoak ziren ikonoak.¹⁶

Leku sakratuaren esanahia (ikonoa, ikusi dugun eran, fededuna espazio zerutiarrera daraman leiho tankerakoa baita, ez dena taulan amaitzen, baizik eta bitartekari lana egiten duena lurraren eta zeruaren artean) elizaren testuingurura ez ezik, erritu, prozesio, ikuskizun edo ekitaldi erlijiosoen bidez, aldi baterako sakratu bihur zitezkeen hiri eta natura inguruetara luzatzen da. Hain zuzen, kultura bizantziarraren baitan, badira elizaren espazio fisikotik at ikonoek espazio sakratuaren *eramaile* gisa funtzionatzen zuten zenbait adibide, paradigmatikoa izanik aztergai izango dugun Konstantinoplako Hodegetria ikonoa eta haren astearteetako mirakuluzko erritua.¹⁷

4. HODEGONEKO HODEGETRIA IKONO MIRARIGILEA

*“Nork margotu nahi zintuzke, oi Birjina, izarrak beharko nituzke eta ez koloreak, zu, Argiaren Atea, luminariak erretratatu beharko baitzintuzkete. Izarrek, ordea, ez die erantzuten hilko direnen ahotsei. Horrexegatik, naturak eta pinturaren legeak eskaini diezagukeenarekin marrazten eta pintatzen dugu.”*¹⁸

Hodegetria ikonoa Panagiaren (gutziz santua, Ama Birjina) irudikapen hedatuena eta, beraz, ospetsuena zen.¹⁹ Hainbestera, ezen XII. mendean Konstantinoplako hiriaren eta enperadorearen babesle jainkotiar izatera heldu baitzen.²⁰ Bizantziar tradizioaren arabera, jatorrizko Hodegetria San Lukas ebanjelariak berak margotu zuen —Maria aurrez aurre zeukala Jesus haurtxoa magalean hartuta²¹— eta V. mendean bidali zuten Konstantinoplara Jerusalemdik, garrantzia handiko erlikia kristauen pare (XI. mendekoak dira sinesmen horren

¹⁵Ibid., 631-632 orr.

¹⁶CORMACK, R.: op.cit., 19 orr.

¹⁷LIDOV, A.: “Spatial icons...” op.cit., 349 orr.

¹⁸Konstantino Rhodioren X. mendeko epigrama. Egilearen itzulpena. RUNCIMAN, S.: *Bizancio: Estilo y Civilización*. Bilbo, Xarait, 1998, 34 orr.

¹⁹CORTÉS ARRESE, M.: *Bizancio: El triunfo de las imágenes sagradas*. Madril, Biblioteca nueva, 2013, 57 orr.

²⁰PARANI, M.: “Experiencing Miraculous Icons in Byzantium. The examples of the Icon of the “Usual Miracle” and the Hodegetria in Constantinople”. *Visibilité et présence de l’image dans l’espace ecclésial. Byzance et Moyen Âge occidental*, 2019, 172-194 orr. <http://books.openedition.org/psorbonne/39802> (2021.02.20an kontsultatua)

²¹CORMACK, R.: op.cit., 44 orr.

berri ematen duten lehen iturri idatziak²²); harrezkero, Jainkoaren Amaren irudi-patroitzat hartu zen Kristauteria osoan.²³

Ezkerreko eskuarekin haurra sostengatuz eta eskuinekoarekin berriz, haurra seinalatuz agertu ohi zaigu Maria. Eskuineko eskuaren keinu hori litzateke Hodegetriaren bereizgarri, horrek egiten du identifikagarri²⁴ (ikus 2. irudia). Izan ere, keinuaren esanahia ezin itxi daitekeen arren (bitartekaritza, miresmena zein haurraren arreta deitzeko asmoa bildu ditzakeen heinean)²⁵, Hodegetria hitzaren etimologia esanguratsua da oso: “Bidea seinalatzen duena” esan nahi baitu. Hortik, imajina dezakegu Hodegetriak helarazten duen mezua: *Jainkoa da bidea*.²⁶ Haurtxoak bedeinkapen keinua eginez erantzuten dio Amari. Antza, prozesioaren inguruan biltzen ziren fededunek imintzio edo keinu horiek errepikatzen zituzten mimetikoki (*proskynesis*arekin batera: gurutzea egitea eta ahuspeztea²⁷), modu horretara, Maria eta Jesusen arteko elkarriketa isila (margotua) otoitzaren espazio fisikora zabalduz.²⁸



2.IRUDIA: *Konstantinoplako Hodegetriaren erreplika (XIV. mendea). Egun Moskuko State Tretyakov Galerian aurki daiteke.*

²²ANGELIDI, C. eta PAPAMASTORAKIS, T.: “Picturing the spiritual protector: from Blachernitissa to Hodegetria”, in VASSILAKI, M.: *Images of the Mother of God*. Aldershot, Ashgate Publishing, 2005, 209-223 orr.

²³LIDOV, A.: “Spatial icons...” op.cit., 350 orr.

²⁴CORMACK, R.: op.cit., 41 orr.

²⁵CORTÉS ARRESE, M.: op.cit., 55 orr.

²⁶LIDOV, A.: “Spatial icons...” op.cit., 349-350 orr.

²⁷PENTCHEVA, B.: op.cit., 640 orr.

²⁸PENTCHEVA, B.: “The ‘activated’ icon: the Hodegetria procession and Mary’s Eisodos”, in VASSILAKI, M.: *Images of the Mother of God*. Aldershot, Ashgate Publishing, 2005, 195-208 orr.

Izan ere, Hodegetria ikono prozesionala zen. Hutsik egin gabe, Konstantinoplan astero eta urtero ospatzen ziren errituetan ez ezik, aparteko beste zenbaitetan ere (garaipen belikoen eta abarren kontura eginikoetan) bazuen bere lekua. Hala ere, Hodegetriaren gurtzari lotutako ekitaldi publiko nagusia (jada XI. mendean finkatua), astearte goizero ospatzen zena zen.²⁹ Lehen argi-urratzearekin batera abiatzen ziren Hodegon elizatik kleriko eta fededunak prozesioaren buruan Hodegetriaren ikonoa eta atzean ikono txikiagoak, gurutzeak (*litanikoi stauroi*³⁰), kandela eta olio-lanpara piztuak, kea zerien intsentsu ontziak, lurrin gozoko espezie eta perfumeak, ehun preziatuak (zeta...) eta abar zeramatzatela. Mesen (hiriko kale nagusian) barrena ibili ostean, astero eliza ezberdin batean borobiltzen zuten erritua, mezaren ospakizunarekin.³¹ Denboraren poderioz, XII-XIV artean, baliteke prozesioa eraldatu izana —Parani ikerlariaren hitzetan³²— edo hasieratik bertatik erritua bi saio ezberdinez osaturik egon izana, bigarrenengoaren aipamen idatziak berantiaragoak (zaharrenak XII. mendekoak) badira ere —Lidoven arabera³³—. Zer gerta ere, jakin badakigu, beste saio hura Hodegon monasterioaren aurreko azoka plazan ospatzen zela eta Hodegetria ikonoa (zeharo astuna behar zuena) lagun batek “Jainkoaren laguntzaz” arintasun osoz bizkarrean hartu eta enparantzari itzulinguruak ematean zetzala, fededunen “*Kyrie eleison, Christe eleison (Jainkoa erruki zaitetz gutaz, Kristo erruki zaitetz, otoi)*” otoitz-kantuen doinura eta zinez ikusgarria zela, <<liluragarria>>, orduko iturri idatzietan (aurrerago landuko ditugunak) irakur daitekeen moduan.³⁴

San Lukasek pintaturiko ohola gurtzen zuten errituekin bateratsu, irudi sakratuaren izaera mirarigilea berresten zuten legendak barreiatu ziren bizantziar munduaren luze-zabalean: hala nola, ikonoklastiaren sasoian, erasoaldiei mirarizko indarrez eutsi eta uxatzen jakin zuela zioena³⁵, edota, behin Jerusalemdik iritsitakoan, Konstantinoplan “etxetzat” izan zuen Hodegon monasterioaren jatorriaren eta kokapenaren ingurukoa, itsuak senda zitzakeen urmael mirarigile batekin harremantzen zena. Theodore Balsamonek enkarguz eskaturiko Hodegetria ikonoaren kopia baten kontura idatziriko epigrama batean (XII. mendea) orijinalaz diharduenean, “ortodoxia tantak” eta “bizitzaren ihintza” isurtzen

²⁹PARANI, M.: op.cit., 183 orr.

³⁰PENTCHEVA, B.: “The ‘activated’ icon...” op.cit., 197 orr.

³¹Ibid., 195 orr.

³²PARANI, M.: op.cit., 184 orr.

³³LIDOV, A.: “The Flying Hodegetria...” op.cit., 295-296 orr.

³⁴Ibid., 296-297 orr.

³⁵PARANI, M.: op.cit., 183 orr.

zituela jaso zuen; seguruenik, metaforikoki Hodegoneko putzuko uraz ari zen, hala, ur horren sendatzeko gaitasuna Birjinaren irudiarekin lotuz.³⁶ Barber arte historiagilearen hitzetan, ikonoen gurtzari lotutako mota horretako kondairak ikonoklastiaren ondorio lirateke.³⁷ Hain justu, esanguratsua da 730. urtetik 843. urtera luzatzen den denbora-tartean sortu zela irudien teoria bizantziarra, ziur aski, ikonoduloek ikonoen gurtza defendatzeko zuten premiaren harira.³⁸ Are, Cunningham ikerlariaren esanetan, lekukotza idatziei esker Jainkoaren Amaren garrantzia Ikonoklastiaren sasoian nabarmen hazi zela berretsi daiteke.³⁹

4.1. AKATHISTOS ZIKLOA

Akathistos VI. mendean sorturiko literatur lan bizantziar ezaguna dugu, Ama Birjinari eskainitako laudoriozko kantu sorta edo himnoa. Etimologikoki, Akathistos hitzak grekoz *zutikako himnoa* esan nahi luke: otoitz hori abestean fededunek, errespetu keinu gisa, zutik egon behar zuten seinale.⁴⁰

Kondairaren arabera, VII. mendean, 626. urteko setioan, Konstantinoplako hiria Birjinaren eta haren mirakuluzko ikonoaren esku-hartzeak salbatu zuten abaro, eslaviar eta pertsiarrengandik⁴¹. Hori dela eta, Sergio aitalehenak (610-638) zeremonia berezi bat prestatu omen zuen Blachernai monasterioan Ama Birjinari esker ona adierazteko. Ekitaldi hartarako, *Deikundearen* jaian abestu ohi zen eta lehendik existitzen zen himno horri atariko bertso batzuk gehitu zizkion, gaurdaino ailegatu den Akathistosa osatuz: “...*Babesle zaitugulako gudan, oi Theotokos, (...) zeure hiriak, oinazetik libratuak, garaipen kantuek eta esker onak eskaini nahi lizkizuke (...)*”⁴² Himnoari kantu hori eranstea, Jainkoaren Amari *Defendatzaile*

³⁶Ibid., 189 orr.

³⁷BARBER, C.: *Figure and Likeness. On the Limits of Representation in Byzantine Iconoclasm*. Oxford, Princeton University Press, 2002, 15 orr.

³⁸PENCHEVA, B.: “The Performative Icon...” op.cit., 631 orr.

³⁹CUNNINGHAM, M.: “Mary as Intercessor in Constantinople during the Iconoclast Period: The Textual Evidence”, in PELTOMAA, L.M., KÜLZER, A. eta ALLEN, P. (ed.): *Presbeia Theotokou [The Intercessory Role of Mary across Times and Places in Byzantium (4th-9th century)]*, Viena, Austrian Academy of Science Press, 2015, 139-152 orr.

⁴⁰Moskuko Kremlin Museoaren web orrialdea:

<https://holy-robe-deposition-church.kreml.ru/en-US/wall-painting/view/veliky-akafist/> (2021.04.04ean kontsultatua)

⁴¹CUNNINGHAM, M.: op. cit., 139 orr.

⁴²Egileak euskaratua. LIDOV, A.: “The Flying Hodegetria...” op.cit., 299 orr.

nagusiaren izendapena aitortu zioten,⁴³ konstantinoplar guztiak zaindu eta anparatzen dituen *naturaz gaindiko zaindaritzat* aurkeztu zuten neurrian.⁴⁴

Harrezkero, mendez mende (gutxi gorabehera, bizantziar aro berantiareraino), Akathistos himnoaren bidez, sinestunek Maria babeslearen figura omentzen jarraitu zuten mirakuluzko askapenaren gertaera gogoangarri hura oroitzeko.⁴⁵ Testuinguru horretan, poesiatik (himno eta homiliak) ikonografiarako igarobidean⁴⁶, alegia, Akathistos zikloa horma-pintura, ikono eta eskuizkribuetako programa ikonografikoetan jasotzeari ekin ziotenean (gutxi gorabehera, XIII. mende bukaeratik aurrera), adierazgarria da oso nola zabaldu zen Hodegoneko Hodegetria ikonoaren astearteetako erritua irudikatzeko ohitura.⁴⁷ Izan ere, inbasioaren aurreko mirarizko esku-hartzea eta hiria babesteko ahalmen edo “maila mirakulutsu” hori ikono jakin bati atxiki zitzaion seinale argia da: San Lukasek margotu zuela uste zen eta Jerusalemik Konstantinoplara, Hodegonera, heldu omen zen Hodegetriaren irudiari, hain zuzen ere.

Hori horrela izanik, Lidoven esanetan, baliteke Hodegetriaren astearteetako prozesioa Akathistos zikloaren eszenetariko baten errepresentazioa izatea, Hodegon elizako ikono mirarigilearen astearteetako liturgia eta 626ko setioa bizantziarren mundu-ikuskeran sinbolikoki harremanduta zeuden heinean.⁴⁸

Moskuko Kremlinek *Dormitio* Katedraleko “Alabantza Ama Birjinari Akathistos zikloaren bidez” ikonoa (XIV. mendearen bigarren erdia) esan berri dugunaren adibide argia genuke (ikus 3. irudia). Konposizioaren erdigunean, Jainkoaren Ama ageri da tronuan eserita, eta haren inguruan, ertz guztian zehar, Akathistosaren himnoen irudikapenak aurki daitezke. Birjina tronuratuarekiko ezker-eskuin alde banatara simetrikoki kokatuta, Hodegoneko Hodegetria irudi sakratuaren Konstantinoplako astearteetako prozesioaren eszenak ditugu, Akathistosaren lehen eta azken *kontakion* edo poemen irudikapenak liritekeenak.

⁴³Moskuko Kremlin Museoaren... op.cit.

⁴⁴PARANI, M.: op.cit., 189 orr.

⁴⁵LIDOV, A.: “The Flying Hodegetria...” op.cit., 299 orr.

⁴⁶TSIRONIS, N.: “From poetry to liturgy: the cult of the Virgin in the Middle Byzantine era”, in VASSILAKI, M.: *Images of the Mother of God*. Aldershot, Ashgate Publishing, 2005, 91-102 orr.

⁴⁷LIDOV, A.: “The Flying Hodegetria...” op.cit., 293 orr.

⁴⁸Ibid., 300 orr.

Eskuineko eszenan (ikus 5. irudia), prozesioaren unerik garrantzitsuena jasotzen dela uler daitekeen horretan, gorri koloreko janzkera duen gizon bat azaltzen da beso zabalik, *orans* eran (otoitz keinua eginez). Sorbalden gainean, zerurantz abiatu dela dirudien ikono mirarigilea *darama*.⁴⁹ Hain zuzen, itxura denez, gizonak bere eramaile lana (ezkerreko eszenan —4. irudia— ikus daitekeena) jada amaitu du, irudiaren azpian kokatuta dirauen arren, ikonoa airean gora doala dirudi. Zentzu horretan, pentsa liteke, argi eta garbi islatzen duela arestian esandako ideia: ikonoak espazio lurtarretik espazio zerutiarrera irekitzen ziren leiho modura definitzen dituen.⁵⁰ Kremlineko taula pintatua arretaz behatuz gero, ikonografikoki bitxia suerta daitekeen elementu baten azpian agertzen zaigu, gainera, Hodegoneko Birjinaren irudia: aterki baten pean (artean, ordea, ezezaguna horren zergatia edo esanahia). Eszena osatuz, eramailearen inguruan, elizgizon eta fededun andana ageri da eta guztiek ere *orans* eran jasotzen dituzte eskuak, Jainkoaren Amari babes eta erruki eske.⁵¹



3. IRUDIA: Moskuko Kremlineko Dormitio Katedraleko

“Alabantza Ama Birjinari Akathistos zikloaren bidez” ikonoa (XIV. mendearen bigarren erdia).

⁴⁹Ibid., 293 orr.

⁵⁰CORMACK, R.: op.cit., 19 orr.

⁵¹LIDOV, A.: “The Flying Hodegetria...”op.cit., 293 orr.



4. ETA 5. IRUDIAK: *Hurrenez hurren, Akathistosaren lehen eta azken kontakionak. “Alabantza Ama Birjinari Akathistos zikloaren bidez” ikonoaren (XIV. mendearen bigarren erdia) xehetasunak.*

Bestalde, “formalki” ere egin liteke lotura Hodegetria ikonoaren errituaren eta 626ko setioaren parte izan zen gertaera baten artean. Izan ere, antza denez, konstantinoplatarrek laguntza jainkotiarraren premia larria zuten gatazka testuinguru horretan, irudi mirakulutsu bat prozesioan hartuta itzulinguru batzuk eman zizkioten Konstantinoplako harresiei. Bere aldetik, Hodegoneko Amaren astearteroko prozesioetan, erritu garrantzitsuena, azoka plazan Hodegetriaren irudia zeraman lagunak egin ohi zuen mugimendu zirkular errepikakor hura zenez gero, zentzu horretan ere planteatu litezke analogiak.⁵²

Beraz, hitz gutxitan esateko, astearteetako erritua 626ko gertaera historikoaren errepresentazio kosmiko eta ikonikotzat har genezake, Hodegetriaren (edo ikonoaren) indar jainkotiarraren bidez hiria Jainkoaren Amaren babesean dagoela gogoraraziko liekeena fededunei.⁵³

⁵²Ibid., 300 orr.

⁵³Ibid., 300 orr.

4.2. SAN LUKASEN TRADIZIOA

Bizantziar tradizioaren arabera, San Lukas ebanjelariak pintatu zuen Hodegoneko Hodegetria ikonoa, Ama Birjina Jesus haurtxoa altzoan hartuta aurrez aurre zeukala.⁵⁴ Estrainekoz, XI. mendearen amaieran jaso zen idatziz Mariaren egurrezko taula San Lukasek margotu zuen legenda hura (ordura arte, pentsa liteke, ahozko tradizioz transmititua).⁵⁵ Tradizioaren sustriak ikonoklastiaren gatazkaren testuinguruan egon litezke (VIII. mendean), ikonoduloek ikonoen ekoizpena eta gurtza defendatzeko zuten premiaren inguruan, hain zuzen ere⁵⁶. Edozein kasutan, argi dago argudio erabakigarria izan zela Lukas ebanjelaria *lehen ikonogile* modura aldarrikatzea ortodoxiaren garaipena lortzeko bidean.⁵⁷

Esan berri dugunaren erakusle da XIV. mende amaierako “Ortodoxiaren Garaipena” izeneko ikonoa (ikus 6. irudia). Bertan, Hodegetria ikono mirarigilea Elizaren jai baten ospakizun giroan agertzen da. Ez da makala ospatzen den egunaren garrantzia, ez horixe: Ortodoxiaren garaipenaren oroigarri, “Irudi Santuen” berrezarpenaren omenezko jaieguna litzateke ikonoak jasotzen duen eszena. Hain zuzen, Hodegoneko Hodegetria, San Lukasek margoturiko ikonoa, gertaera horretan funtsezko izan ziren pertsonaien bilkuraren erdigunean agertzen da: Teodora enperatriza eta haren seme gaztea zen Migel III.a enperadorea, Metodo patriarka (antza, jaieguna noiz ospatu finkatu zuena), santuak, gotzainak eta monjeak. Ikono mirarigilea sostengatzen duten eta soinean tunika gorria daramaten figura hegadunek, seguruenik, Hodegoneko monasterioaren zerbitzura zegoen elkarte edo *diakonia* errepresentatzen dute; haien hegoek leinu jainkotiarrekoak ziren sinesmena ekar diezagukete gogora. Irudi sakratu honek, hortaz, aldiberekotasunez, gertaera historikoa, gertakizunaren barne esanahia eta haren errepresentazio ziklikoa ospatzen dituela esan genezake. Egiaz, ez dago argi Hodegetriak 843ko Ortodoxiaren garaipenaren gertaeran aktiboki parte hartu zuenentz, dena den, Bizantzioko historiaren eta legenden biltze edo elkargunetzat har liteke berau.⁵⁸

⁵⁴CORMACK, R.: op.cit., 44 orr.

⁵⁵PARANI, M.: op.cit., 182-183 orr.

⁵⁶CORMACK, R.: *Icons*. London, British Museum, 2014, 14 orr.

⁵⁷CORMACK, R.: *Painting the Soul...* op.cit., 46 orr.

⁵⁸CORTÉS ARRESE, M.: op.cit., 58 orr.



6. IRUDIA: “Ortodoxiaren Garaipena” ikonoa (XIV. mendea). Egun Londreseko British Museumen dago.

Ortodoxiaren jaia urtero ospatzen zen Garizumaren lehen igandean. Festa horrek oihartzuna izan zuen XI. mendeko miniatura baten harira (egun Atos Mendian gordeta dagoena) eta denboraren poderioz, XIV. mendean, ikono guztien ikonoa eta *Theotokoupolis* edo hiriaren babesle zen Hodegetriaren irudiaren presentzia ezinbesteko bihurtu zen, garaikidea den eta ikusi berri dugun ikonoak islatzen duen bezalaxe.⁵⁹

Bestalde, San Lukasek pintaturiko ohol hura alde bakarretik ala bietatik margotuta zegoen ezin ziurta daitekeen arren, badira Hodegoneko Hodegetria ikonoak atzealdean Kristo Gurutziltzatuaren irudia zuela dioten testigantza idatziak. Kasurako, XV. mendeko Pero Tafur bidaiariak hala dio: “ (...) *bada Geure Andrea den Birjina Mariaren irudi bat, San Lukasek eginikoa, bestaldean Geure Gizona duena gurutziltzatuta, harlauz gainean pintatua eta ertz guztian zehar zein oinarrian zilarreztatua.*”⁶⁰ Badira, halaber, denboran aurrera egin ahala, mundu ortodoxoaren luze-zabalean sinesmen horri jarraiki eginiko kopiak, alde bietatik daudenak margotuta. Esaterako, San Klemente elizan (Ohrid, Mazedonia) aurki daitekeen XIII. mendeko *Peribleptos* Hodegetria ikonoa⁶¹ (ikus 7. irudia). Egiaz zer gerta ere, argi dago, hala izatekotan ikonoak hartuko zuen esanahiaren dimentsioa eta sakontasuna, Kristauteriako mirari handienak gogoraraziko bailizkieke fededunei: Gizakundea eta Sakrifizio Erredentorea⁶².

⁵⁹Ibid., 59 orr.

⁶⁰Ibid., 57 orr.

⁶¹PENTCHEVA, B.: “The ‘activated’ icon...” op.cit., 196-197 orr.

⁶²LIDOV, A. “Spatial icons...” op.cit., 354 orr.



7. IRUDIA: *San Klemente elizako (Ohrid, Mazedonia) Peribleptos irudi sakratua: Hodegetria ikonoaren kopia (XIII. mendea), atzealdean Kristo gurutziltzatua duena.*

4.3. HODEGON MONASTERIOA

Elezaharrari jarraiki, Hodegetria ikonoa Konstantinoplara heltzean edo heltzerako, enperadoreak Hodegon monasterioa eraikitzeke agindua eman zuela pentsa genezake. Legendak eta historia nahasten diren honetan, ordea, errealitatea bestelakoa da, monasterioaren aurrekinak ez V. mendean, baizik eta lau mende beranduago eraiki zirela uste baita. Hain zuzen, adituen arabera, baliteke Hodegon monasterioaren jatorria, Migel III.aren (842-867) aginduz 861-865 artean, itsuentzako sendagarria zela sinesten zen putzu mirarigile baten inguruan eraikitako santutegia izatea. Itxura denez, Migel III.ak Konstantino V.a (741-775) enperadore ikonoklastaren garaiko kapera bat zaharberritu eta atondu zuen. Gerora, XI. mendean zehar, eliza monasterio bihurtu zen. Kokapenari dagokionez, Hodegon monasterioa Hagia Sophiatik eta enperadore-enperatrizen Jauregitik nahiko gertu zegoen, zehatz-mehatz esateko, Konstantinoplako ekialdeko muturrean, Hagia Sophiatik Manganas auzoko San Jurgi monasteriora iparraldetik joz, eskuinerantz. Hortik aurrera, eraikinaren egitura nolakoa izan zitekeen, artean argitzeke dago aztarnen urritasuna dela eta.⁶³

Antza, Hodegon monasterioaren historiaren hasierako sasoian ia-ia ez dago Mariaren taula mirarigilearen erreferentziarik, Lesboseko San Tomasek bere *Vita* lanean (X. mende inguruan) eliza horretako “Jainkoaren Amaren ikono sakratuetariko batengandik gertu” otoitz egin izana aipatzen duen arren. XI. mendekoak dira Hodegoneko Birjinaren ikono

⁶³PARANI, M.: op.cit., 182 orr.

mirakulutsuaren berri ematen duten iturri gehienak, bertakoek zein bidaiariek idatzirikoak⁶⁴, hau da, ortodoxiaren garaipenaren (843) ostekoak, arestian aipatutako Barberren teoriarekin bat etorritik.⁶⁵

Hodegonaren barnealdean Hodegetria non eta nola zegoen kokatuta galderari erantzunez, Ruy Gonzalez de Clavijoren arabera (Konstantinopla XV. mende hasieran bisitatu zuen diplomatiko gaztelaua), ikonoa bi hankatxok (idulki tankerakoa) sostengatzen zuten eta fintasun handiz zizelkatutako marko batek inguratzen zuen. Gainean, harribitxiz hornituriko zilarrezko estaldura distiratsua omen zeukan. Horrez gain, *caxa di fiero* edo burdinezko kutxa batean gordeta egon ohi zela dio, hori, ordea, nahasgarria suerta daiteke, kutxa irekia izan ezean, ezin ikusi ahal izango zutelako Hodegonera gerturaturiko fededunek.⁶⁶

Itxura denez, ikono mirarigileak zetazko edo antzerako ehun preziatuko beloz jantzi ohi zituzten elizaren barnean zeudenean, biluzik egon ohi ziren ikono “arruntak” ez bezala (azken horiek, uler liteke, fededun ororen eskura: ikusgai eta zuzenean ukitzeko moduan egon ohi zirela —*aspmoserako* edo musu eman ahal izateko, adibidez⁶⁷—).⁶⁸ Beti ere, baina, estaldurak atzeko ikono mirakulutsua erdikusten utziko zuela pentsatzen da, ezkutatzearaino heldu gabe.⁶⁹ Belo hori kalterako izan gabe: zuzenean ezin ukitu arren, fededunek Hodegetria edertzen zuten ehunduren eta harribitxien “ukipen-balioa” antzemango baitzuten begiz haren aurrean pausatzean, ikusmenaren bidez ukimenaren zentzumena ere piztuko zitzaenez gero (modu horretara, ikusmenaren esperientziaren “mugetan” mugituz).⁷⁰

Bada 1300. urte inguruko miniatura bat, *Hamilton Salmo-Liburuan* aurki daitekeena (ikus 8. irudia) eta Hodegoneko ikonoaren kokapena argitzen lagun dezakeena. Zortzi pertsonai agertzen dira, burdinsare baten atzean eta errezel tankerako baten pean dagoen Hodegetriaren ikonoa gurtuz. Horrek azalduko luke Clavijoren “burdinezko kutxa”⁷¹: egiaz ez zena izango itxia eta opakua, baizik eta zuloduna: horrek dakarren argi eta distira jokuen biderkatzearen balio gehigarriarekin —gogoratu zilarra, harribitxiak, olio-lanparak, kandelak,

⁶⁴Ibid., 182 orr.

⁶⁵BARBER, C.: op.cit., 15 orr.

⁶⁶PARANI, M.: op.cit., 186 orr.

⁶⁷MATHEWS, T. eta MULLER, N.: op.cit., 3 orr.

⁶⁸PARANI, M.: op.cit., 192 orr.

⁶⁹Ibid., 186 orr.

⁷⁰PENTCHEVA, B.: “The Performative Icon...” op.cit, 631 orr.

⁷¹PARANI, M.: op.cit., 186 orr.

Hodegon elizako baoetatik sartuko ziren eguzki izpiak...—. Bestalde, ikono mirarigilea babesteaz gain, espazio intimoagoa eskaini ziezaiokeen fededunari eta baita, nolabait, sarbidea zaintzeko aukera eman ere, lehentasuna emanaz gaixorik zeudenei eta sendatzeko premia zutenei. Hartaz eta beste zeregin batzuez (hala nola: ikonoaren zainketa eta garbiketa lanez edo Hodegonera sartzen zen fededun orori iturri mirarigiletik hartutako ur bedeinkatua banatzez) elkarte bat (edo *diakonia*⁷²) arduratzen zen,⁷³ “San Lukas Ebanjelistaren tribuarekin” erlazionatu ohi zena: Hodegetriaren margolari saildua haien arbasoa izan zela sinesten zen⁷⁴.



8. IRUDIA: *Hamilton Salmo-Liburuko miniatura (1300 inguru). Egun Berlingo Staatliche Museoon dago.*

Hodegon monasterioa Hodegetriaren gurtzaren habi izan arren, ziur aski, beste hainbeste ikonorekin ere egingo zuten topo, kaletik elizara sartzen ziren (lurrean egonik zerurantz abiatuz) garaiko fededun bizantziarrek. Izan ere, otoizlekuak ikonoz horniturik egon ohi ziren, gizarte bizantziarraren partaide guztiei zabalik. Horrexegatik, uler liteke, orokorrean *working images* horiek (eta zer esanik ez, Hodegoneko Hodegetria ikonoak), kultura bizantziarraren bihotzera bertara garamatzatela.⁷⁵

⁷²ANGELIDI, C. eta PAPAMASTORAKIS, T.: op.cit., 217 orr.

⁷³PARANI, M.: op.cit., 188-189 orr.

⁷⁴LIDOV, A.: “Spatial icons...” op.cit., 351 orr.

⁷⁵CORMACK, R.: *Painting the Soul...* op.cit., 77 orr.

4.4. ASTEARTEETAKO ERRITUA

Konstantinoplan ospatzen ziren prozesio guztien artean Hodegoneko Hodegetria ikono mirarigilearen astearteetako erritua zen esanguratsuen. Izan ere, huraxe zen ezagunena eta itzal handiena zuena ekialdean (zein mendebaldean, Lidov arte historiagilearen esanetan), ikonoen gurtza tradizioari zegokionean. Eta, jakina, *Bidea seinalatzen duen* Ama Birjinaren irudi sakratua bera zen ikuskizunaren ardatz.⁷⁶ Aztertu bezala, prozesioa Akathistos zikloaren eszenetarikoa baten errepresentazioa zenez gero, fededunek laudoriozko otoitzak abesten zizkioten Hodegetria ikonoari (irudiak jasotzen zuen Birjinaren eta Jesus haurtxoaren arteko elkarrizketa mimetikoki errepikatu eta *proskynesis*a egitearekin batera), konstantinoplarrak zaintzen eta babesten jarrai zitzaizkien erregutu eta eskertuz⁷⁷. Ibilbideari dagokionez, Konstantinoplako erdigunean bertan gertatzen zen mirarizko prozesioa, enperadore-enperatrizen Jauregi Handitik eta Hagia Sophiatik gertu —*Mese* izeneko kale nagusian zehar eta Hodegon aurreko plazan—. ⁷⁸

Astero ospatzen zen Hodegetriaren errituaren baitan bi saio mota ezberdin bereiz genitzake. Bata ikonoa Hodegonetik atera eta *Mese* kalean zehar ospatzen zen prozesioa litzateke —Hodegetria buru eta alboan, gurutzak (*litanikoi stauroi* izenekoak⁷⁹); ikono txikiagoak; fededunen *otoitzen antzera* zerurantz igotzen zen kea zerien intsentsu ontziak⁸⁰; kandela eta olio-lanpara piztuak; ehun preziatuak (urrez brodatutako purpurazko beloak, zeta...); espezieak; perfumeak eta abar zeramatzatela—, egutegi erlijiosoaren arabera, eliza desberdinean amaitu ohi zena mezaren ospakizunarekin.⁸¹ Lehen hori, tradizioaren arabera, V. mendeko Pulcheria enperatrizak ezarri bazuen ere, testigantza historikoen urritasuna tarteko, zurragoa da pentsatzea ikonoduloen 843ko ortodoxiaren garaipenaren arrakastaren ostean loratu zela.⁸² Argitzeke dago ikonoa eliza barrura sartzen zutenentz, baliteke irudia elizara sartuz Ama Birjinaren *Aurkezpena Tenpluan* (*Eisodos*) eszena sakratua errepresentatzea⁸³ edo, oster, erretratu sakratua elizaren ataurrean pausatu izana.⁸⁴ Nolanahi ere, XI-XII.

⁷⁶LIDOV, A.: “Spatial icons...” op.cit., 349-350 orr.

⁷⁷Ibid., 293 orr.

⁷⁸PENCHEVA, B.: “The ‘activated’ icon...” op.cit., 195 orr.

⁷⁹Ibid., 197 orr.

⁸⁰LIDOV, A.: “The Flying Hodegetria...” op.cit., 303 orr.

⁸¹PARANI, M.: op.cit., 183 orr.

⁸²LIDOV, A.: “The Flying Hodegetria...” op.cit., 295 orr.

⁸³PENCHEVA, B.: “The ‘activated’ icon...” op.cit., 200-201 orr.

⁸⁴PARANI, M.: op.cit., 183 orr.

mendeetan zehar, hiriburu bizantziarreko zein inguruko biztanleen bizimodu erlijiosoan errotu zen astearteetako erritu hura.⁸⁵

Denboraren poderioz, XII-XIV artean, litekeena da prozesioa eraldatu izana —Parani ikerlariaren hitzetan⁸⁶— edo hasieratik bertatik erritua bi saio ezberdinez osaturik egon izana, bigarrenengoaren aipamen idatziak berantiaragoak (zaharrenak XII. mendekoak) badira ere —Lidov arte historiagilearen arabera⁸⁷—. Zer gerta ere, Hodegon monastegiaren aurrean zegoen azoka plazan burutu ohi zen eta bertaratzen zen oro hunkitzen zuen erakustaldi harrigarrian zetzan:⁸⁸ ikonoa oso pisutsua izan arren, lagun batek bere kabuz, *aingeruzko boterez*⁸⁹, arinki bizkarrean hartu eta hara eta hona ibiltzen zen jira-biraka. Are, fededunek itzulunguruen gidari erretratu sakratua zela sinesten zuten, alegia, hark agintzen zuela lagunarengan (irudi biziduna edo *empsychos graphe* balitz bezala⁹⁰), hain abiadura bizian mugiaraziz, ezen Hodegetria zerurantz aireratzen —hegan abiatzen— zela baitzirudien.⁹¹

Zorionez, denboran zehar gaur arte iritsi zaizkigun eta Hodegetriaren asteroko mirariez diharduten testigantza idatzi dezente daude. XI-XIV. mendeen artean, munduko bazter ezberdinetatik Konstantinoplara joandako erromes eta bidaiariek ematen digute ikuskizunaren berri, euren bidaia liburuetakoa kontakizunen bidez.⁹² Azter ditzagun idazkiak kronologikoki:

Hona hemen, XI. mende amaierako erromes latindar batek kale nagusian zehar ospatzen zen prozesioaren gainean (alegia, errituaren “lehen saioari” buruz) jasotako testigantza:⁹³

“Hodegetria izeneko eliza batean greziarren arabera San Lukasek margotu zuen Theotokosaren ikonoa aurki daiteke. Ikono hauxe da gurtuena Konstantinopla mailan (...) Urte osoan zehar, asteartez, kleroak ohore handiz erakusten du hirian barrena, ezin konta

⁸⁵Ibid., 183 orr.

⁸⁶Ibid., 184 orr.

⁸⁷LIDOV, A.: “The Flying Hodegetria...” op.cit., 295-296 orr.

⁸⁸CORTÉS ARRESE, M.: op.cit., 56 orr.

⁸⁹LIDOV, A.: “Spatial icons...” op.cit., 352 orr.

⁹⁰PENCHEVA, B.: “The performative Icon...” op.cit., 632 orr.

⁹¹JIMÉNEZ DE LA ESPADA, M.: *Pero Tafur: Andazas y viajes de un hidalgo español*. Madril, Miraguano, 1995, 97-98.orr.

⁹²LIDOV, A.: “Spatial icons...” op.cit., 350 orr.

⁹³PENCHEVA, B.: “The ‘activated’ icon...” op.cit., 198 orr.

ahala jende joaten da (prozesioan) haren atzetik (...), Theotokosari alabantzak abestuz eta esku artean kandela piztuak sostengatuz. Egun osoa hartzen duen prozesio honetara etorriko bazina, ahots gozo askoren lekuko izango zinateke, eklesiastiko zein laiko (...), gazte, adineko... (den-denek) laudoriatzen dutelako (ikonoaren bidez) Birjinak haragitu zuen Jainkoaren hitza. (...) Jainkoaren Amaren irudi noble hori beste hainbeste eliza urreztatu eta sakratuetako ikonoek dute eredutzat (...) Urtaroko egun jakinaren arabera (...) (erabakitako) elizan ospatzen dira herritarren jaiak (liturgia). Laikoak biltzen dira bertan (...) eta meza ospatzen da. Behin erritua amaitutakoan, ikonoa dagokion elizara eramaten dute bueltan, ohore handiz.”⁹⁴

Mende bat barru (XII. mende bukaera), beste errones latindar batek Hodegon aurreko plazan gertatzen zen mirakulua nabarmendu zuen bere bidaia kronikan⁹⁵, <<angeruzko boterea>> eta <<berezko mugimendua>> atxikiz irudiari.

“(...) Astero, ikonoa aingeruzko boterez mugitzen zen jendetzaren aurrean, zurrumbilo tankerako batek astinduko balu bezala. Eta eramailearengan ikonoak agintzen zuen, berezko mugimendu zirkularrarekin, abiadura bizian (...). Bien bitartean, euren tradizioari jarraiki, (eskuarekin) bularraldea kolpatuz, hoska aritzen ziren: Kyrie eleison, Christe eleison (Jainkoa erruki zaitetz gutaz, Kristo erruki zaitetz, otoi).”⁹⁶

Denboran aurrera eginez, XIV. mende hasieraldeko Eztebe Novgorodekoa errones errusiarrak berriz, 1348 edo 1349 artean bisitatu zuen Konstantinopla eta herritarrak <<apaindura zainduko>> ikono <<oso handi>> baten iragatearen inguruan batzen zirela ikusi zuen⁹⁷, baita ñabardura gehiago eskaini ere:

“Ikonoa oso handia da eta apaindura oparoa du, kantu eder bat abesten dute haren aurrean, jendeak negar-malkotan deiadar egiten duen bitartean: Kyrie eleison (Jauna erruki zaitetz gutaz). (...) Ikuskizun liluragarria da: zazpi edo zortzi lagun behar dira (ikonoa) gizon baten sorbalda gainean jarri ahal izateko, eta Jainkoak hala nahi duelako ezer eramango ez balu bezala ibiltzen da (gizona).”⁹⁸

⁹⁴Egileak euskaratua. Ibid., 198 orr.

⁹⁵LIDOV, A.: “Spatial icons...” op.cit., 352 orr.

⁹⁶Egileak euskaratua. Ibid., 352 orr.

⁹⁷CORTÉS ARRESE, M.: op.cit., 55 orr.

⁹⁸Egileak euskaratua. LIDOV, A. “The Flying Hodegetria...” op.cit., 297 orr.

Ruy Gonzalez Clavijokoa bidaiariak bere aldetik, 1403-1406 inguruan, idatzi zuen bazela <<Mariaren taula gaineko irudi bat, diotenez, San Lukasek bere eskuz marraztu eta burutu zuena>> eta asteartero ikonoari <<jai handi>> bat egiten ziela, erlijiosoen, beaoten eta beste jende askoren bilkura izaten zen testuinguruan. Jarraian, erritualaren testigantza jaso zuen:⁹⁹

*“Eta ordua heltzen denean, irudi hura ateratzen dute elizatik plazara, hain astuna dena ezen hiru edo lau gizonen artean (...). Behin ateratakoan, enparantzaren erdian kokatu eta jende guztiak otoi egiten dio, negar eta anpulukak. Eta hartan, agure bat etortzen da eta otoi egiten du irudiaren aurrean, eta arinki jasotzen du, zamarik batere ez balu bezala (...). Miresgarria da nola altxatzen duen bere kabuz. Eta diotenez (...) Jainkoarengandik datozen leinukoek soilik jaso dezakete. Eta urteko jai batzuetan, irudi hori Santa Sofiara eramaten dute solemnitater handiz, jendeak debozio handia baitio”.*¹⁰⁰

Beharbada, zehaztapen gehien eskaintzen dituen iturri idatzia, XI. mendeko erromesaren idazkiarekin batera, Bizantziar Inperioaren hiriburua 1437an bisitatu zuen Pero Tafur bidaiariarena dugu, hona hemen haren lekukotasuna:¹⁰¹

“Asteartero, hogeitaz gizon inguru etortzen dira, burua estaltzen dien liho gorritzko jantzi luzea daramatela soinean. Gizonok leinu berezikoak behar dute izan, gai baitira euren kasaka zeregina betetzeko. Prozesio ederra egiten da, eta hala jantzita doazen gizonak banan banan gerturatzen zataizkio ikonoari, eta (...) haietako batek aise jasotzen du, ontza bat besterik pisatuko ez balu bezala. Sorbalda gainean hartu eta kantari ateratzen da jendea elizatik plaza handi batera, irudia daramana hara eta hona ibiltzen da eta berrogeita hamar itzuli ematen dizkio enparantzari. Irudiari begiratzuz gero, lurretik oso goian (airean bezala) eta guztiz antzaldatuta dagoen irudipena ematen du. (...) Beste bat etorri, berriz jaso eta aurrekoak bezalaxe sorbaldan jartzen du, eta ondoren beste batek, eta horrela jarduten dira egunean zehar lauzpabost. Egun horretan, azoka izaten da plazan eta jendetza biltzen da, eta elizgizonek kotoi (pusketa bat) hartu, irudia ukitu eta bertaratu den jendearen artean

⁹⁹CORTÉS ARRESE, M.: op.cit., 55 orr.

¹⁰⁰Egileak euskaratua. Ibid., 55 orr.

¹⁰¹JIMÉNEZ DE LA ESPADA, M.: op.cit., 97-98.orrr.

banatzen dute (...). Konstantinoplan egon nintzen artean, ez nuen irudi hura erakutsi zen egun bakar bat ere galdu, benetan liluragarria baita.”¹⁰²

Oro har, idazki guztiek sakonki adierazten dute Hodegetria ikonoaren astearteetako mirarizko erritua. Izan ere, ikonoaren izaera ez ezik —dimentsioak, pisua, apaindura...—, prozesioaren ibilbidea —elizak, kaleak, Hodegon monasterioaren aurreko plaza...— edota berau zaindu eta garraiatzeaz arduratzen zen *diakonia* ere —gorriz jantziriko eramaileak, legendaren arabera, San Lukasen leinukoak eta, hortaz, jatorri jainkotiarrekoak zirenak— ere aipatzen dituzte. Horrez gain, Ama Birjina ikustera bertaratzen zen jende kopurua —kronika guztietan fededun andana hurbiltzen zela azpimarratzen da—, ikuskizunaren eguna —asteartero, azoka egunean ospatzen zen— zein prozesioaren osagai ziren kantuak eta otoitzak ere zehazten dituzte —ahots gozoak, *Kyrie eleison* eta kantu ederrak aitutzen dira—.

Hori gutxi balitz, errituen berri ematen zaigu, esanez, elizgizon batek kotoi pusketa bat hartu, irudi sakratua ukitu eta jendearen artean banatu ohi zituela ‘ortodoxia tantak’ —Hodegoneko putzu mirarigileko ur tantak izan zitezkeenak¹⁰³—. Era berean, iturri gehienek islatzen dute Hodegetria ikonoaren izaera mirarigilea, irudiaren hegaldi aingerutarra¹⁰⁴ edota eriak sendatzeko zuen ahalmena iradokiz. Azkenik, kronika guztiek azpimarratzen dute ekitaldiak bertaratutakoengan sorrarazten zituen lilura —negar egiteraino—, hain justu, ikonoaren eta fededunen arteko elkarrizketa osatzen zuten espazialtasunaren eta esperientzia sinestesikoaren ondorio litzatekeena.


Hitz eta testuen bidez Hodegoneko Hodegetria ikonoaren astearteetako errituaren inguruan gure irudimenean sortu den irudia, hezurmamituta ikus dezakegu garaiko artelan batean. Artatik gertu (Grezia Kontinental) bada XIII. mende amaierako fresko bat, *unicuma*, zehazki esateko, Blachernai monasterioko nartexean aurki daitekeena (ikus 9. irudia). Lan piktorikoak ezin hobeki biltzen du Hodegetria ikono mirarigilearen asteroko errituaren testuingurua, hau da, prozesioa ospatzen zen jai giroa. Izan ere, egun horretan egokitzen zen feria erretratzen du, xehetasun eta xarma handiz, gainera. Tamalez, freskoaren zati batzuk denborak jan dituen gero, osorik heldu ez bazaigu ere.

¹⁰²Egileak euskaratua. Ibid., 97-98.orr.

¹⁰³PARANI, M.: op.cit., 189 orr.

¹⁰⁴LIDOV, A.: “The Flying Hodegetria...” op.cit., 298-299 orr.

Konposizioaren erdigunean, ohiko ikonografia irakur dezakegu: gorritz jantziriko pertsonaia (ikonoaren eramailea), beso zabalik *orans* eran (hau da, otoitz keinua eginez) eta haren gainean, airean balebil bezala, Hodegetria ikono erraldoi eta harribitxiz edertua. Alderik alde, ezker-eskuin, jende bilkura itzela ageri da, Hodegetriaren ikonoa daraman lagunaren antzera otoitz keinua eginez. Goialdean berriz, ezkerretara, jauregi dotore bat ikus daiteke, arkuteria eta guzti, leihora gerturatu diren pertsonaiekin, prozesioaren iragaiteari so egin eta Birjinaren ikonoa agurtzeko. Azpialdean, eszena multzo zoragarri bat aurki daiteke: asteartez plazan ospatu ohi zen azoka giroaren islada, hain zuzen: saltzaileak, jakiak saskietan daramatzaten pertsonaiak, hizketan eta jakiak dastatzen edo edanean ari diren lagunak... igarri daitezke. Hori gutxi balitz, inskripzio bat ere badu, laburbilduz, hala dioena: “...Konstantinoplako Birjina guztiz santua. Jainkoaren Ama. Hodegetria”.¹⁰⁵



9. IRUDIA: Artatik gertu (Grezia Kontinental) dagoen Blachernai monasterioko nartexeko XIII. mende amaierako freskoaren berreraiketa.

¹⁰⁵Egileak euskaratua. Ibid., 293-294 orr.

Horrenbestez, esan genezake, Ama Birjinak bere naturaz gaindiko presentzia berresten zuela Konstantinoplako *palladiuma* (babesle nagusia) zen Hodegoneko Hodegetria ikonoaren bitartez, asteroko mirarien testuinguru horretan. Izan ere, irudi sakratuaren bidez, nolabait, Jainkoaren Amaren botere zerutiar, sendagarria, Konstantinopla osoan zehar barreiatzen zen. Modu horretara, prozesioak irauten zuen artean, hiri espazioa sakratu bihurtzen zen: eliza erraldoia, Jainkoaren etxea edo Jerusalem Zerutiarra.¹⁰⁶

Bestalde, Hodegetria ikono mirarigileak eremu publikoan zuen presentzia sekulakoa izanik —eremu erlijiosoaz haraindi, testuinguru zibilera hedatzen zen ikonoaren esanahia, hiriaren egunerokotasunean parte hartzen zuen neurrian— arreta horretan jarri badugu ere, komeni da ñabartzea, aldi berean, modu pribatuan ere, herritar xumeenetik punta-puntako herritarretaraino, fededun gehienek bazutela etxean Hodegoneko Hodegetria ikonoaren kopiaren bat, hari otoitz eginez babesa, sendabidea eta kontsolamendua bilatzen zutenez gero.¹⁰⁷

4.5. KONSTANTINOPLAKO *PALLADIUMA*

Inperio bizantziar ertainaren garaian, Hodegoneko Hodegetria mirarigilea Konstantinoplaren *palladiuma* bihurtu zen, hau da, mundu bizantziarraren hiriburuko babesle nagusia, herritarren debozioa ez ezik enperadore-enperatrizen aitortpena ere biltzen zuena.¹⁰⁸ Horrek esan nahi du, Hodegoneko Amak Inperio Bizantziarraren zabaltasuna anparatzen zuela, alegia, inperioa bere osotasunean babesten zuela ulertzen zutela. Ez zen, hortaz, makala *Bidea seinalatzen zuen* ikonoari atxiki zioten balioa. Horregatik, haren astearteetako agerraldi eta liturgiaren berri lau haizetara zabaldu zen lur bizantziarrean barrena: lehentasuna eta ospea hartu zituen Ama Birjinaren gurtza-esferetan. Hitz gutxitan esateko, denboraren poderioz, Hodegetria ikono mirarigilearen garrantzia hazi eta hazi egin zen kultura bizantziarrean, harik eta XII. mendean gurtza erritu inperialen barnean txertatu zen arte.¹⁰⁹

Izendapen edo aitorten horren lorpenaren ondorio lirateke haren astearteetako prozesio mirakulutsuen gaineko idazki historikoak (aurreko atalean aztertu berri ditugunak), mundu ortodoxoaren luze-zabalean aurki daitezkeen Hodegetria ikonoaren kopiak bezalaxe

¹⁰⁶LIDOV, A.: “Spatial icons...” *ibid.*, 355 orr.

¹⁰⁷PARANI, M.: *op.cit.*, 189 orr.

¹⁰⁸CORTÉS ARRESE, M.: *op.cit.*, 57 orr.

¹⁰⁹ANGELIDI, C. eta PAPAMASTORAKIS, T.: *op.cit.*, 216 orr.

(hots, Hodegoneko Hodegetriaren tipo ikonografikoaren proiektzioa). Hain zuzen, jatorrizkoa iritsi ez zaigun arren (esan bezala, 1453ko erorialdian desagertu zen), milaka kopia existitzen dira.¹¹⁰ Konparazio baterako, egun British Museumen dagoen XVI. mende erdialdeko *Smolenskaya* (Errusian izen hori hartu zuen Hodegetriaren tipo ikonografikoak) Jainkoaren Ama¹¹¹ (ikus 10. irudia).

Arrautz tenperaz egina dago egurrean, eta gainetik zenbait geruza distiratsu ditu: zilar urreztatudun estaldura eta esmaltea.¹¹² Beraz, jatorrizko ikonoa bezain ikusgarria ez izan arren —gogoan izan Hodegoneko Hodegetria harribitxiz inguratua zegoela—, dirdira handiko akabaera du *Smolenskayak* ere, eta arestian aztertu dugun moduan, ezaugarri hori ikonoaren ikuspen espazialaren eta fededunen esperientzia sinestestikoaren osagai gisa behar genuke ulertu.

Eszenari helduz, ohi bezala, Ama Birjina eskuineko eskuarekin ezkerrekoan sostengatzen duen Haurra seinalatuz ageri da. Bere aldetik, Jesus haurtxoak bedeinkapen keinua eginez erantzuten dio Amari. Berezitasun modura, Kristok pergamino itxi bat darama ezkerreko eskuan. Itxura denez, 1456. urte inguruan, prototipo bizantziarraren kopia bat pintatu zuten Moskuko Deikundearen Katedralerako eta *Smolenskaya* izenez laudatu zuten. Batik bat 1514tik aurrera finkatu zen ikono horren gurtza, Errusiako hiri bat *Smolensk* izendatu zutenean, hain justu. Ondoko mendeetan Ama Birjinaren irudi sakratu gurtuenetarikoa izan zen adierazle da, besteak beste, harekin harremanatu izana errusiarrek Borodinoko batailan (1812) lortu zuten garaipena.¹¹³

¹¹⁰CORTÉS ARRESE, M.: op.cit., 57 orr.

¹¹¹British Museumaren web orria: https://www.britishmuseum.org/collection/object/H_1998-1105-27 (2021.04.07an kontsultatua)

¹¹²Ibid.

¹¹³Ibid.



10. IRUDIA: XVI. mende erdialdeko Smolenskaya Jainkoaren Ama. Egun British Museumen aurki daiteke.

Hodegoneko Hodegetria Konstantinoplako *palladiuma* izan zen lekuko argiak lirateke halaber, punta-puntako pertsonaiek (enperadore-enperatrizek, nobleziako kideek...) Hodegon elizara gerturatu eta ikono mirarigileari eginiko eskaintzak (adibidez, gudetan irabazle irtendakoan, garaipena hari zor ziotelakoan, esker onez).¹¹⁴

Mota horretako ofrendek azalera metalikoan inskripzio poetikoak izan ohi zituzten, oparia nork ekarri zuen argi gera zedin; beharbada, modu horretara, *parousiaren* unea heltzean salbamena errazago lortuko zutela pentsatuz. Kasurako, XII. mende hasieraldean, Juan II Komnenos (1118-1143) enperadoreak perlaz ederturiko koroa bat ekarri zion eskaintzat Hodegetria ikonoari, inskripzioaren bidez ere “bere bidea argitzen jarrai zezala” erregutuz. Adituen arabera, zuzenean ohol pintatuaren gainean ezarri zuten koro hura, Ama Birjinaren aureola margotua harribitxiz apaintzeko. Aro ertaineko inbentario eklesiastiko bizantziarrei esker, enperadore hark egin zuen eran, Hodegoneko ikonoari koroak eskaintzea ohikoa zen jakitun gara.¹¹⁵

Itxuraz, bigarren eskaintza zabalduena “argia pasatzen uzten duen” beloa zen (ἐγγείρια jatorrizko izenez), XII. mendeko poema epigrafiatuek (Anna Arbatenerenak kasu) erakusten dutenez gero. Badirudi beloak purpura kolorekoak eta zetazkoak izan ohi zirela,

¹¹⁴ANGELIDI, C. eta PAPAMASTORAKIS, T.: op.cit., 216-217 orr.

¹¹⁵PARANI, M.: op.cit., 190-191 orr.

urrezko brodatuekin; kasu batzuetan, harribitxi eta guzti. Babesa eta sendabidea beloaren eskaintzaren bidez erregutu izanak bereziki aproposa dirudi, babes zentzu argia duten neurrian. Hodegetriak hamaika belo zituenz gero, seguruenik urteko egunaren edo jaiegunaren arabera “soinean” bata edo bestea jarriko ziotela pentsatzen da. Aintzat hartzekoa da, halaber, ikono batek beloa bazeraman, nahitaez hiru irizpide betetzen zituen adierazle zela: antzinatasuna, mirariak sortzeko ahalmena eta oinarri debozional nabarmena; XII. mendean Hodegetriak osagai horiek guztiak zituen seinale.¹¹⁶

Bistan da, eskaintza horiek (taula pintatuari gehitzen zitzaizkion neurrian) Hodegetriarengana gerturatzen zen (izan Hodegon elizan, izan prozesioetan) fededun andanaren esperientzia baldintzatuko zuela, ikonoa ezberdin hautemango baitzuten.¹¹⁷ Hain zuzen, jatorriz azalera lauekoa izan arren, parafernalia hori guztia tarteko, ikono erliebedunen itxura hartuko zuen: Pentcheva arte historiagilearen hitzetan, zentzumen guztiak piztu eta barne hartzen dituen ikono bizantziarren esperientzia *oso* hori ongien adierazten dutenena, alegia.¹¹⁸

5. ONDORIOAK

Hodegoneko Hodegetria ikono mirarigilea ahal bezain beste prismetatik aztertu ostean, agerian geratu da garai hartako gizartean betetzen zuen tokiaren neurria. Hain zuzen, ikonoen funtzioaren gaineko ikerketatik abiatuz, lehenik eta behin, fededunek ikonoen aurrean bizi zuten esperientzia moduan sakondu dugu, ikusiz nola zen funtsezkoa testuinguruarekiko elkarrizketa ikonoak “ikusteko” orduan, bi zentzutan. Batetik, espazio sakratuaren osagai guztiekiko loturan, alegia, argiztapenaren dramaturgia, intsentsua erretzea, musika eta abar. Bestetik, eta hauxe litzateke garrantzitsuena, ikonoaren eta fededunaren arteko elkarrizketa genuke, makineria hori guztia abiarazi eta irudi sakratuari *bizia* emango liokeena: irudiaren aurrean arnastu ahala kandelen argi puntuak ikonoaren azalera zehar dirdiraraziz, adibidez. Bata zein bestea xehetasunez miatzeak giltza eman digu, kanpotik begira eta hezurdurara murriztuz gero *egur pusketa pintatu* hutsa iruditu dakiguken ikonoak, fededunen begietara mirariak nolaz sor zitzakeen konprenitu ahal izateko.

¹¹⁶Ibid., 192 orr.

¹¹⁷Ibid., 191 orr.

¹¹⁸PENTCHEVA, B.: “The Performative Icon...” op.cit., 631 orr.

Ondoren, Hodegoneko Hodegetria ikono mirarigilearen analisi ikonografikoak, jatorrizkoa desagerturik dagoen arren, mundu ortodoxoan barrena hura eredutzat duten kopiak identifikatzeko eta hainbeste bider errepikatu izanak esan nahi duen ospeaz jabetzeko bide eman digu. Jarraian, Hodegoneko Hodegetria ikonoa zerk egiten duen berezi, edo gainerako ikonoengandik zerk bereizten duen ikertu dugu (ikono guztiak zeruranzko leiho eta beraz, salbazio-, esperantza- eta babes- iturri jainkotiarrak izan arren, denak ez baitziren sendabide eta mirarigile): ikonoklastiaren sasoian, haren jatorri jainkotiarraren inguruan hitz eta irudiz jaso zen tradizioa, hain zuzen ere.

San Lukas ebanjelariak sortu zuen sinesmenetik hasita, iraganeko gudetan konstantinoplarrak etsaiengandik askatu (Akathistos zikloa izanik islada argiena, 626ko setioari lotuta) eta eriak sendatu zituen (kokalekutzat zuen Hodegon monasterioko putzu mirakulutsuko urarekin harremanduz) mezua helarazten zuten kondairetaraino. “Oinarri mitiko” horren gailurra Hodegoneko Hodegetria ikonoa 843ko Ortodoxiaren Garaipenarekin erlazionatzea izan zen, harrezkero, ortodoxiaren sinbolo bereizgarri bihurtu baitzen.

Hain justu, irudi sakratuen arrakastaren ondotik, mundu bizantziarrean barrena Hodegoneko Hodegetria ikonoaren gurtza eta liturgiak nabarmen hazi zirela ikusi dugu —garaiko testigantza idatziak eta *unicuma* den Artako freskoa lagun— Konstantinoplako ikuskizun erlijioso itzelenak omen ziren astearteetako prozesioen bidez. Azkenik, XII. mendean hiriburu bizantziarraren *palladium* izaera bereganatu izanaren esanahia argitu dugu, *eikon* bat Inperio Bizantziar osoaren *naturaz gaindiko zaindaritzat* ulertzen zutela esan nahi bailuke, alegia, hura zegoen artean, fededunek sinesten zuten salbu zirela gaitz guztietatik, izan gerra, izan izarriak...

Horrenbestez, Hodegetria ikonoaren kasua ereduzkoa eta aparta den arren, ikonoz beteriko mundu bizantziarraren barruan soilik har dezake zentzua. Esan nahi da, Hodegoneko Birjinarren ikono mirarigilearen analisiaren bitartez, lanean zehar bizantziar kulturaren paisaiaren trazuak ere aurki daitezkeela nonahi. Hain zuzen, zubi lana eginez, konkretutik unibertsalerako gogoeta bideak ireki nahi lituzke lan honek. Besteak beste, bizantziar historiaren mila urte haietan zehar, irudi sakratuei loturiko gurtzak izan zuen bilakaerari so egiteko, edota ikonoek bizantziarren egunerokotasunean betetzen zuten funtzioaren balioaz hausnartzeko.

Are, gogoeta eremua alderik alde, ahal bezain beste zabalduz, irudiak gizakion Historian kultura ezberdinetan izan duen garrantziaren gainean jardun gindezke. Harik eta ohartu arte, Gombrich arte historiagilearen hitzak gogoratu¹¹⁹, zentzu zabalean bederen, badela garaiak eta lekuak zeharkatzen dituen hari bat, gizatiarra den neurrian, unibertsala dena. Elementu hori, nolabait adierazteko, irudiek erakusten duten edo ikusgarria den horretaz haratago, irudiak ikusezinak diren beste esanahi batzuekin lotzeko dugun joera litzateke. Joera hori argi antzeman liteke bizantziar munduan: ikonoek zerutiarra, hautemanezina eta ikusezina dena ikusgarri, hautemangarri bihur zezaketen lurrean, fededunek bizi zuten haraindiko esperientzia erlijiosoaren bidez. Gurean, ikusmenaren mugetan mugitzen den irudien aurreko esperientzia bizantziar horretatik urrun bagaude ere, han hemenka, irudiei loturiko iraganeko pentsamendu magikoaren printzak aurki ditzakegu. Izan ere, demagun pertsona maitatu baten argazkia daukagula esku artean: oharkabean bada ere, ez ginateke gai izango irudiari kalterik eragiteko, *paper pusketa bat* baizik ez dela eta pertsona horri ezertxo ere ez litzaiokeela gertatuko jakin arren¹²⁰. Hortaz, irudiak gordetzen ez duen eta, hala ere, barruan daramala sinesten dugun esanahi berri bat erantsiko genioke imajinari.

6. BIBLIOGRAFIA

- ANGELIDI, C. eta PAPAMASTORAKIS, T.: “Picturing the spiritual protector: from Blachernitissa to Hodegetria.”, in VASSILAKI, M.: *Images of the Mother of God*. Aldershot, Ashgate Publishing, 2005, 209-223 orr.
- BARBER, C.: *Figure and Likeness. On the Limits of Representation in Byzantine Iconoclasm*. Oxford, Princeton University Press, 2002.
- BECKWITH, J.: *Arte paleocristiano y bizantino*. Madril, Manuales Arte Cátedra, Anaya, 2007.
- CORMACK, R.: *Painting the Soul: Icons, Death Masks and Shrouds*. Londres, Reaktion Books, 1997.

¹¹⁹GOMBRICH, E.: *Historia del Arte*. Madril, Alianza, 1982, 33-34 orr.

¹²⁰Ibid., 33-34 orr.

- CORMACK, R.: *Icons*. London, British Museum, 2014.
- CORTÉS ARRESE, M.: *Bizancio: El triunfo de las imágenes sagradas*. Madril, Biblioteca nueva, 2013.
- CUNNINGHAM, M.: “Mary as Intercessor in Constantinople during the Iconoclast Period: The Textual Evidence”, in PELTOMAA, L.M., KÜLZER, A. eta ALLEN, P. (ed.): *Presbeia Theotokou [The Intercessory Role of Mary across Times and Places in Byzantium (4th-9th century)]*, Viena, Austrian Academy of Science Press, 2015, 139-152 orr.
- GOMBRICH, E.: *Historia del Arte*. Madril, Alianza, 1982.
- GRABAR, A.: *La edad de oro de Justiniano: desde la muerte de Teodosio hasta el Islam*. Madril, Aguilar, 1988.
- JIMÉNEZ DE LA ESPADA, M.: *Pero Tafur: Andanzas y viajes de un hidalgo español*. Madril, Miraguano, 1995.
- LIDOV, A.: “The Flying Hodegetria. The Miraculous Icon as Bearer of Sacred Space”, in THUNOE, E. eta WOLF, G. (ed.): *The Miraculous Image in the Late Middle Ages and Renaissance*, Erroma, Analecta Romana Instituti Danici: Supplementum, 2004, 291-321 orr.
- LIDOV, A.: “Spatial icons. The miraculous performance with the Hodegetria of Constantinople.”, in LIDOV, A. (ed.): *Hierotopy. Creation of Sacred Spaces in Byzantium and Medieval Russia*, Mosku, Progress, 2006, 349-372 orr.
- MATHEWS, T. eta MULLER, N.: “Isis and Mary in early icons”, in VASSILAKI, M.: *Images of the Mother of God*. Aldershot, Ashgate Publishing, 2005, 3-12 orr.
- PARANI, M.: “Experiencing Miraculous Icons in Byzantium. The examples of the Icon of the “Usual Miracle” and the Hodegetria in Constantinople”. *Visibilité et*

présence de l'image dans l'espace ecclésial. Byzance et Moyen Âge occidental, 2019, 172-194 orr. <http://books.openedition.org/psorbonne/39802> (2021.02.20an kontsultatua)

- PENTCHEVA, B.: “The ‘activated’ icon: the Hodegetria procession and Mary’s Eisodos”, in VASSILAKI, M.: *Images of the Mother of God*. Aldershot, Ashgate Publishing, 2005, 195-208 orr.
- PENTCHEVA, B.: “The Performative Icon.” *The Art Bulletin*, 88. liburukia, 4.zbk., 2006, 631–655 orr. www.jstor.org/stable/25067280 (2021.01.23an kontsultatua)
- RUNCIMAN, S.: *Bizancio: Estilo y Civilización*. Bilbo, Xarait, 1988.
- TSIRONIS, N.: “From poetry to liturgy: the cult of the Virgin in the Middle Byzantine era”, in VASSILAKI, M.: *Images of the Mother of God*. Aldershot, Ashgate Publishing, 2005, 91-102 orr.
- VASILIU, A.: “Lo visible, la imagen y el icono en los comienzos de la era cristiana”, in VELMANS, T.: *El mundo del icono desde los orígenes hasta la caída de Bizancio*. Madril, San Pablo editorial, 2003, 209-222 orr.

WEB ORRIAK

- Londreseko British Museumaren web orria: https://www.britishmuseum.org/collection/object/H_1998-1105-27 2021.04.07an kontsultatua.
- Moskuko Kremlin Museoaren web orria: <https://holy-robe-deposition-church.kreml.ru/en-US/wall-painting/view/veliky-akafist/> (2021.04.04ean kontsultatua)

IRUDIAK

1. Gaur egungo eliza ortodoxo bateko liturgiaren erritua. Grezia. Argazkilaria: Δημήτριος Χατζής
2. Konstantinoplako Hodegetriaren erreplika (XIV. mendea). Egun Moskuko State Tretyakov Galerian aurki daiteke: <https://www.tretyakovgallery.ru/en/> (2020.04.04ean kontsultatua)
3. Moskuko Kremlineko *Dormitio* Katedraleko “Alabantza Ama Birjinari Akathistos zikloaren bidez” ikonoa (XIV. mendearen bigarren erdia). COSTEA, C.: “Notes on the Akathiston at Arbore”, *Revue Roumaine d'Histoire de l'Art : Série Beaux-Arts*, XLVII. zbk., 2010, 25-30 orr.
4. Akathistosaren lehen *kontakiona*. “Alabantza Ama Birjinari Akathistos zikloaren bidez” ikonoaren (XIV. mendearen bigarren erdia) xehetasuna. LIDOV, A.: “The Flying Hodegetria. The Miraculous Icon as Bearer of Sacred Space”, in THUNOE, E. eta WOLF, G. (ed.): *The Miraculous Image in the Late Middle Ages and Renaissance*, Erroma, Analecta Romana Instituti Danici: Supplementum, 2004, 291-321 orr., 277 orr.
5. Akathistosaren azken *kontakiona*. “Alabantza Ama Birjinari Akathistos zikloaren bidez” ikonoaren (XIV. mendearen bigarren erdia) xehetasuna. LIDOV, A.: “The Flying Hodegetria. The Miraculous Icon as Bearer of Sacred Space”, in THUNOE, E. eta WOLF, G. (ed.): *The Miraculous Image in the Late Middle Ages and Renaissance*, Erroma, Analecta Romana Instituti Danici: Supplementum, 2004, 291-321 orr., 278 orr.
6. “Ortodoxiaren Garaipena” ikonoa (XIV. mendea). Egun Londreseko British Museumen dago: https://www.britishmuseum.org/collection/object/H_1988-0411-1 (2020.04.04ean kontsultatua)
7. San Klemente elizako (Ohrid, Mazedonia) *Peribleptos* irudi sakratua. Hodegetria ikonoaren kopia (XIII. mendea), atzealdean Kristo gurutziltzatua duena. VASSILAKI,

M.: *Images of the Mother of God*. Aldershot, Ashgate Publishing, 2005, hamabigarren “xafla” (colour plate) koloreztatua.

8. Hamilton Salmo-Liburuko miniatura (1300 inguru). Egun Berlingo Staatliche Museoan topa daiteke: <https://www.smb.museum/en/home/> (2020.04.05ean kotsultatua)
9. Artatik gertu (Grazia Kontinentala) dagoen Blachernai monasterioko nartexeko XIII. mende amaierako freskoaren berreraiketa. LIDOV, A.: “Spatial icons. The miraculous performance with the Hodegetria of Constantinople”, in LIDOV, A. (ed.): *Hierotopy. Creation of Sacred Spaces in Byzantium and Medieval Russia*, Mosku, Progress, 2006, 363 orr.
10. XVI. mende erdialdeko Smolenskaya Jainkoaren Ama. Egun British Museumen aurki daiteke: https://www.britishmuseum.org/collection/object/H_1998-1105-27 (2020.04.22 an kotsultatua)